

- **Funtsezko jarduerak**

Produktuak ekoizteko, lehendabizi baimenak eskuratu behar ditugu. PH neutrodun xaboiak ekoitziko ditugu modu naturalean. Bezeroak bi modu izango ditu gure produktua erosteko; salmenta puntuetara joatea edo gure web orrian erostea. Web-orrian gainera gure xaboi guztien zerrenda eta hauen ezaugarri nagusiak eskuragarri izango dituzte.

Xaboiak ezagutzera emateko komertzialak gure produktuen eskaintza egingo die inguruko hotel eta belar-dendei.

Publizitateari dagokionez, gure produktuen informazioa Interneten jarriko dugu eta baita gaur egun asko erabiltzen diren sare sozialetan ere. Honetaz gain inguruko herrietako merkatuetan gure xaboiaren demostrazioak egingo ditugu eta xaboi nola elaboratzen dugun azaldu ere.